



HERRIKO KONTSEILUKO BILKURAREN TXOSTENA

Donamartiriko Herriko Kontseilua 2018 ko otsailaren 20 an bildu da, 19:00tan, Antton LARRABURU jaun auzapezaren lehendakaritzapean.

Hor zirenak : APHECETCHE Alain, ARMENDARIZ Alain, BORDARRAMPE Xalbat, LADEUIX Jean-Pierre, MIRANDE Mathias, POCHELU Bernadette.

Ezin etorria jakinarazia zutenak : CHABAGNO Inès, HARISMENDY Emmanuelle, MINONDO Mirentxu, POCHELU Didier

Bilkurako idazkaria : LADEUIX Jean Pierre. Bilkuraren hastapena : 19:00

1 / Armendaritzeko, Oyhenarteko, Haramburiako eta Irazabaliako bidexka parteen besterentzea

2017ko azaroaren 21an, Herriko Kontseiluak aho batez deliberatu zuen baserri bidexka parteen kentzea eta besterentzea.

Tokiko jabeei agindua izan zitzaien haien jabegoaren muga ziren bidexka parteen erostea, hilabeteko legeko epea emanez, 2017/12/11tik goiti.

Epe honen ondotik, Kontseiluak bidexka parte hauen besterentzeari buruz bere iritzia eman behar du.

Haramburia izeneko bidexkaren besterentzearendako, Auzapeza gelatik ateratzen da, aferan interesa baitu.

Ohyenart izeneko bidexkaren besterentzearendako, Lehen axuanta gelatik ateratzen da, aferan interesa baitu.

Herriko Kontseiluak aho batez bozkatzen ditu bidexka parteen besterentzea.

2 / Aurrekontu norabideak

Auzapezak batzarrari 2018ko herriko aurrekontuaren prestaketaren elementuak aipatzen dizkio, eta proiektu ezberdinei buruz puntua egiten du.

3/ Gai ezberdinak

- **Ibilgailu elektrikoek kargatzeko gune baten ezartzea** : Herriko Etxeko aparkalekuan gune baten ezartzeaz gogoetatu ondotik, proiektua gibelatua da.
- **Biltzar Nagusi data ezberdinen berri ematea: BILTZARra 02 24an ; Denek Bat elkartea 03 10an; Etxeko Haurtzainen gunearen eguna 03 10an.**
- **Toponimiaz puntua**

Bilkuraren bukaera : 20:35

2018/02/27an afitxatua izaiteko ikusia, Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2121-25 artikularen arabera.

Auzapeza,
2018/02/27an